

Hirigintza*Jendaurreko Erakusketa*

Eskatzailea: Embalajes Baiona, S.L.

Jarduera: Enbalajea.

Kokapena: Donostia Ibilbidea 70, Local 1.

Iragarki honen bidez, jakinarazten dut, goian aipatzen den irekiera espedientea eta egitasmoa inork ikusi nahi baditu, udaletxean dituela eskura.

Azkenik, jakinarazten dut, inork udalari alegaziorik aurkeztu nahi badu jarduera honen aurka, 15 eguneko epea duela, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Astigarraga, 2005eko maiatzaren 12a.—Juan Joxe Uranga Mendiburu, Hirigintzako Ordezkarria.

(1568)

(4813)

AZPEITIKO UDALA*Jendearentzako argibideak*

Jarduera ezartzeko eskaera Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko lege orokorraren arabe-ra tramitatu behar dena.

Eskatzailea: Ignacio Lasa Rezola (Chatarras Lasa).

Jarduera: Hondakin arriskugabeak kudeatzeko etxea.

Lekua: Gerratziki Kalea 5 - A - Landeta Auzoa.

Aipatu Legeko 58 atalaren arabera, herritarrak jakinaren gainean jartzeko epe bat zabalduko da, jarduera hori dela-eta beren burua eragindakotzat jotzen duten guztiak egokiak diren oharrak egin ahal ditzaten. Espedientea hamabost laneguneko epean egongo da ikusgai Udaleko Idazkaritzan bulego-orduetan. Epe berean erreklamazioak ere aurkeztu ahal izango dira Erregistro Nagusian.

Azpeitia, 2005eko maiatzaren 18a.—Julian Eizmendi Zinkunegi, Alkatea.

(1512)

(4913)

ELGOIBARKO UDALA*Iragarkia*

Irekitzeko Baimena behar duten Establezimenduen Barruko Zarata Kontrolatzeko, Udalaren Jarduera Arautuko duen Udal Ordenantzaren hasiera bateko onarpena argitaratu ondoren, eta 7/1985 Legearen 49.c artikuluan zehazten den legezko epean jendaurrean egon eta inolako erreklamaziorik egon ez denez, behin betiko onartutzat jotzen da.

Ondorioz, eta Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasotakoari jarraiki, aipaturiko Ordenantza osorik argitaratuko da.

Elgoibar, 2005eko maiatzaren 13a.—M.^a Victoria Aguirregomezcorta Urain, Alkatea.

(1960)

(4935)

Urbanismo*Exposición Pública*

Solicitante: Embalajes Baiona, S.L.

Actividad: Embalaje.

Emplazamiento: Donostia Ibilbidea 70, Local 1.

Notifico, mediante este anuncio, que el expediente y el proyecto de apertura referenciado se encuentran en el Ayuntamiento a disposición del público.

Asimismo, hago saber que quien desee hacer alguna alegación en contra de dicha actividad dispone del plazo de 15 días a partir del día siguiente de la publicación del anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Astigarraga, a 12 de mayo de 2005.—El Delegado de Urbanismo, Juan Joxe Uranga Mendiburu.

(1568)

(4813)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA*Información pública*

Solicitud de establecimiento de actividad a tramitar según la Ley General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

Solicitante: Ignacio Lasa Rezola (Chatarras Lasa).

Actividad: Centro Gestor de Residuos no Peligrosos.

Emplazamiento: Gerratziki Kalea n.º 5 A - B.º Landeta.

Según el art. 58 de la citada Ley, se abre información pública para que quienes se consideren afectados/as de algún modo por la actividad que se pretende establecer puedan hacer las observaciones pertinentes. El expediente se puede consultar, durante quince días hábiles, en horas de oficina en la Secretaría de este Ayuntamiento. En el mismo plazo se pueden presentar reclamaciones en el Registro General.

Azpeitia, a 18 de mayo de 2005.—El Alcalde, Julian Eizmendi Zinkunegi.

(1512)

(4913)

AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR*Anuncio*

Habiendo sido publicada la aprobación inicial de la Ordenanza Municipal Reguladora de la Actuación Municipal para el Control del Ruido en el Interior de los Establecimientos sujetos a Licencia de Apertura y no habiéndose producido reclamación alguna en el plazo legal de exposición pública, de conformidad con lo estipulado con el artículo 49.c de la Ley 7/1985, se entiende definitivamente aprobado.

En consecuencia, se procede a la publicación íntegra de la citada Ordenanza, conforme a lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Elgoibar, a 13 de mayo de 2005.—La Alcalde, M.^a Victoria Aguirregomezcorta Urain.

(1960)

(4935)

Irekitzeko baimena behar duten establezimenduen barruko zarata kontrolatzeko, udalaren jarduera arautuko duen udal ordenantza.

Zioen aurkezpena.

Zaratak sortzen dituzten nahasteen aurrean herritarrak babesteko, udalak izan beharreko jarduera arautuko duen araudia egitea behar-beharrezkoa da; izan ere, agerian geratu dira, gaur egungo bizimoduari dagokionean, indarrean dagoen araudiak dituen gabeziak.

Gaur egun, gizartearen sentiberatasunak gero eta indar handiagoz eskatzen die erakundeei, lasaitasuna, atsedena eta ongizatea sustatuko duten hiri ingurune lasai batez gozatzeko eskubidea berma dezatela.

Horiek horrela, beharrezkoa da kutsadura akustikoak sortzen dituzten arazoak arautzea; horrela, hots-giroa asalda dezaketen establezimenduek bete behar dituzten baldintzak ezartzeko, eta bide batez, asaldura horiek jasaten dituzten pertsonengan, eta kasu askotan, sortzen dituzten psikologia, familia eta lan gorabeherak ekiditeko.

Azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuaren bidez onartutako Jarduera Gogaikariei, Osasungaitzei, Kaltegarriei eta Arriskutsuei buruzko Araudiak honako hauek izendatzen ditu jarduera gogaikarritzat: Sortzen dituzten zarategatik eta bibrazioengatik enbarazuren bat sortzen dutenak. Hala ere, araudi hori zaharkituta gelditu da, denbora ugari igaro baita hori onartu zenetik.

Era berean, ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuak, bizitegi-tarako lurzoru hiritarrean kokatzen diren jarduera gogaikariei, osasungaitzei, kaltegarriei eta arriskutsuei ezar dakizkiekeen neurri zuzentzaileen artean, aipatzen ditu jarduera horiek, sortzen duten zarata dela-eta, eragiten dituzten kalteak gutxituko dituzten neurriak.

Azkenaldian, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko Lege Orokorrak, Bigarren Tituluan ingurumen-baliabideak babestu beharra aipatzen du, eta horren baitan zarataren aurkako borroka ere aipatzen du. Horrela bada, Legeak eskumena ematen die Autonomia Erkidegoko udalei ordenantzak promulgatzeko, eta soinu-iturri berrien ezarpena mugatzeko.

Era berean, Legeak, Hirugarren Tituluan, sailkatutako jarduerak jartzeko araudia zehazten du, eta pertsonen zein haien ondasunei enbarazuak edo kalteak sor diezazkieketen jarduerak edo instalazio publikoak nahiz pribatuak jartzeko baimenak emateko prozedura ere eguneratzen du.

Azkenik, Zarata buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legeak, III. Kapituluan eskumena ematen die herri administrazioei, alde batetik, jarduera gogaikariei, osasungaitzei, kaltegarriei eta arriskutsuei emandako baimen horien baitan, igorle akustikoen inguruan jarduteko, eta bestetik, jarduerak burutzeko edo kutsadura akustikoa sor lezaketan ekipamenduen instalaziorako eta funtzionamendurako emandako baimenen inguruan jarduteko. Horiek horrela, sistema bat jarri ahal izango da emisio akustikoak berez kontrolatzeko.

Beraz, ingurumen arloko araudiek zaratak kontrolatzeko erantzukizuna ematen diete udalei, eta hori onartu beharreko gauza da. Horrela bada, gizakien osasunaren, herritarren lasaitasunaren eta, oro har, ingurumenaren aurkako eragin kaltegarriak ekiditeko, prebenitzeko edo gutxitzeko baliabide guztiak, bai araudien arlokoak bai giza baliabideen arlokoak, jarri behar dira.

Horrenbestez, erregelamendu-ahalmenaz baliatzeak, udal-autonomiaren adierazpide den aldetik, udal korporazioei ematen zaizkien eskumen nagusiak garatzea eta egokitzea dakar. Horiek horrela, udal ordenantzak erregulazio harmonikoa izan beharko du, eta aldi berean, goragoko mailan dagoen araudia-rekin bat etorri beharko du.

Ordenanza Municipal Reguladora de la Actuación Municipal para el Control del Ruido en el Interior de los Establecimientos sujetos a Licencia de Apertura.

Exposición de motivos.

La elaboración de una norma que actualice la regulación de la actuación municipal en defensa de la vecindad frente a las perturbaciones por ruidos es una necesidad que se ha puesto de manifiesto al constatar, en la realidad cotidiana, las insuficiencias de que adolece la normativa vigente actual.

Hoy día la sensibilidad social exige de las instituciones, cada vez con más fuerza, que garanticen el derecho a disfrutar de un medio ambiente urbano que posibilite la tranquilidad, el descanso y el bienestar.

Es por ello necesario regular los problemas generados por la contaminación acústica para determinar las condiciones que deben cumplir aquellos establecimientos hosteleros potencialmente perturbadores del clima sonoro y, poner fin a las molestias que generan, produciendo en muchos casos trastornos psicológicos, familiares y laborales en las personas que las sufren.

El Reglamento de actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas, aprobado por el Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre, considera actividades molestas, todas aquellas que constituyan una incomodidad por los ruidos y vibraciones que produzcan. Sin embargo dicho Reglamento ha quedado bastante obsoleto por el tiempo transcurrido desde su aprobación.

El Decreto 171/1985, de 11 de junio, fija asimismo entre las medidas correctoras a aplicar a las actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas a establecerse en suelo urbano residencial, algunas tendentes a reducir las molestias que por ruido puedan producir este tipo de actividades.

Más recientemente, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, aborda en su Título Segundo la protección de los recursos ambientales, abarcando la lucha contra el ruido, atribuyendo a los municipios de la Comunidad Autónoma la competencia de promulgar ordenanzas y limitar asimismo la implantación de nuevas fuentes sonoras.

Asimismo, en su Título Tercero, esta Ley aborda el régimen de instalación de actividades clasificadas, actualizando el procedimiento de concesión de licencias a aquellas actividades e instalaciones públicas o privadas que fueran susceptibles de causar molestias o producir riesgos a las personas o sus bienes.

Finalmente, la Ley 37/2003, de 17 de noviembre del Ruido faculta en su Capítulo III a las Administraciones públicas a intervenir sobre los emisores acústicos en el marco de las aludidas licencias sobre actividades molestas insalubres, nocivas y peligrosas, así como en el resto de autorizaciones, licencias y permisos que habiliten para el ejercicio de actividades o la instalación y funcionamiento de equipos susceptibles de producir contaminación acústica, pudiendo establecer un sistema de autocontrol de las emisiones acústicas.

Por lo tanto, el control de los ruidos es una responsabilidad que las diferentes normas ambientales atribuyen a los ayuntamientos y que debe asumirse poniendo los instrumentos necesarios, tanto normativos como humanos y materiales, para evitar, prevenir o reducir los efectos nocivos sobre la salud humana, el sosiego público y el medio ambiente en su conjunto.

Lógicamente, el ejercicio de la potestad reglamentaria, que es una manifestación de la autonomía municipal, conlleva el desarrollo y la adecuación de las potestades generales que se atribuyen a las corporaciones locales, de tal forma que la ordenanza municipal constituya una regulación armónica a la vez que congruente con la normativa de rango superior.

Bestalde, berrikuntzarik esanguratsuen honakoa da: Ezinbestekoa izango dela, Eusko Jaurlaritzaren Barne Saileko abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 3 eta 4 taldeetan sailkatutako jardueretan soinuak grabatzen dituen frekuentzia-mugatzaille bat jartzea.

Tankera honetako neurriak justifikatuta gelditzen dira, udalak konprobatzeko eta ikuskatzeko eskumena duelako, eta «segidako traktu» gisa sailkatuta dauden baimenei aplikatu dakizkiekeen neurri zuzentzaileak sailkatzeko eta ezartzeko eskumena ere baduelako. Hori dela eta, ikuskatze jarduerak, eragin-korra izango bada, baimenen baldintzetan gerta litezkeen desbideratzeak detektatu eta zuzendu beharko ditu. Horien artean daude egindako zarataren mugak. Horiek horrela, zaratak etengabe eta automatikoki mugatzeko edo kontrolatzeko tresnaren bat jarri beharko da.

Ordenantza honetan arau-hausteen eta zehapenen arloan jasotako aurreikuspenak, aipatutako araudietan jasotako xedapenen zehaztapena baino ez dira, eta ez dute horietan edo beste araudi batzuetan ezarritako zehapen-araubidea mugatzen.

1. artikulua. Xedea eta aplikazio-eremua.

1. Honako Ordenantzaren helburua da, jendearentzako irekita dauden ostalaritza eta sukaldaritza establezimenduetan barruko zarata maila eta funtzionamendurako ordutegia arautzea eta kontrolatzea, bai alde aurretik legeztatuta dauden jardueretan, bai berriki zabaldu direnetan ere.

2. Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen da, Eusko Jaurlaritzako Barne Sailaren abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuaren 3. eta 4. taldeetan sailkatutako jardueren berrietan, soinuak grabatzen dituen frekuentzia-mugatzaille bat jartzea.

— 3. taldea: Jarduera berezi bezala, dantzatzeko pistarik izan gabe, musika jartzeko baimena duten lokalak eta instalazioak, adibidez:

Taberna bereziak, wiskeriak, klubak, taberna amerikarrak, pubak, disko tabernak, karaokeak eta antzekoak.

— 4. taldea: Ikuskizunak antolatzeke edo dantzatzeko pista eta musika izateko baimena duten lokalak eta instalazioak, esaterako:

Dantzalekuak, diskotekak, kafe-antzokiak, ikuskizunak antolatzen dituzten jatetxeak eta antzekoak.

Talde hauetan irekitzeko baimenaren eskabideari, lokal barruko zarata isolatuta dagoela egiaztatzen duen agiria ere gehitu beharko zaio. Egiaztagiria hori jardueraren titularrak edo arduradunak ordaindu behar izango du.

3. Jarduera irekitzeko, Udalaren baimena duten establezimenduetan, baldin eta horiek zarata ateratzeagatik Udaltzaingoren salaketa edo parte bat badute, soinuak grabatzen dituen frekuentzia-mugatzaille bat berehala jartzeko obligazioa ezarriko die Udalak 3. eta 4. taldeetan sailkatuta dauden establezimenduei.

4. Udalak soinuak grabatzen dituen frekuentzia-mugatzaillea jartzera behartuko ditu ordenantza honen bidez araututako establezimendu guztiak, baita 296/1997 Dekretuaren 1. eta 2. taldeetan sailkatuta daudenak ere, baldin eta horiek, zaraten ondorioz, lokaletan eta ondoko etxebizitzetan arazoak sortzen badituzte.

2. artikulua. Musika aparatuen zarata eta ainguraketaren gutxieneko isolamendua

a) Jendearentzako irekita dauden ostalaritza eta sukaldaritza establezimenduek, lokal barruko zarata isolamenduari eta ainguraketa mailari dagokionean, honako balio hauek izan beharko dituzte:

En cuanto a la novedad más significativa es de señalar la obligatoriedad de instalar un limitador frecuencial con registro sonográfico en aquellas actividades clasificadas dentro de los grupos 3 y 4 del Decreto 296/1997, de 16 de diciembre del Departamento de Interior del Gobierno Vasco.

La justificación de este tipo de medidas se encuentra en la potestad municipal de comprobación e inspección y de calificación e imposición de medidas correctoras, aplicada a un tipo de licencia de las calificadas como de «tracto sucesivo», donde la actividad inspectora, si ha de ser eficaz, a fin de garantizar la detección y corrección de las desviaciones que puedan producirse sobre las condiciones de la licencia, entre las que se encuentran los límites de emisión e inmisión de ruidos, exige la instalación de dispositivos de limitación y de control permanente y automático.

Las previsiones en materia de infracciones y sanciones que se realizan en la ordenanza son una concreción de disposiciones contenidas en las normas señaladas y no limitan el régimen sancionador establecido en las mismas o en otras normas.

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

1. La presente Ordenanza tiene por objeto regular y controlar el nivel de ruido y horarios de funcionamiento en el interior de los establecimientos destinados a la actividad de hostelería, y restauración de pública concurrencia, tanto en los existentes legalizados, como en los de nueva a implantación.

2. Para ello se establece la obligatoriedad de instalar un limitador frecuencial con registro sonográfico en aquellas actividades de nueva implantación, clasificadas dentro de los grupos 3 y 4 del Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, del Departamento de Interior del Gobierno Vasco.

— Grupo 3: Locales e instalaciones con autorización para disponer, como actividad especial, de música sin pista de baile, tales como:

Bares especiales, wiskerías, clubs, bares americanos, pubs, disco bares, karaokes y asimilables.

— Grupo 4: Locales e instalaciones con autorización para disponer de música con pista de baile o realizar espectáculos, tales como:

Salas de fiestas, salas de baile, discotecas, cafés-teatros, restaurantes con espectáculos y asimilables.

En estos grupos la comprobación del aislamiento a ruido aéreo del local que deberá aportarse como documento a la solicitud de apertura de la actividad, será financiada por el titular o regente de la actividad.

3. En los establecimientos existentes incluidos en los grupos 3 y 4 y con licencia de apertura municipal, el Ayuntamiento exigirá la instalación inmediata de un limitador frecuencial con registro sonográfico a aquellos establecimientos que hayan sido motivo de por lo menos una denuncia o un parte de la Policía Municipal por ruido.

4. El Ayuntamiento exigirá la colocación de un limitador frecuencial con registro sonográfico a cualquier establecimiento regulado por la presente ordenanza, incluso a los clasificados en los grupos 1 y 2 del referido Decreto 296/1997 a medida que generen problemáticas de ruido en los locales y viviendas próximas.

Artículo 2. Aislamiento mínimo a ruido aéreo de los locales y niveles de anclaje de los aparatos musicales.

a) Los establecimientos destinados a la actividad de hostelería y restauración de pública concurrencia deberán disponer del siguiente aislamiento a ruido aéreo mínimo y nivel de anclaje de los aparatos musicales.

<i>Taldea Grupo</i>	<i>Definizioa Definición</i>	<i>Isolamendua Aislamiento</i>	<i>Aingurak Anclaje</i>
2. taldeko lokalak Locales del grupo 2	Jatetxe jarduera burutzeko edo edari alkoholdunak saltzeko baimena duten lokaletan eta instalazioetan / Locales e instalaciones con autorización para expender bebidas con alcohol o ejercer actividades de restauración	60 db.	75 db (A)
3. taldeko lokalak Locales del grupo 3	Musika ekipoa izateko baimena baina dantzarako pistarik ez duten lokaletan eta instalazioetan / Locales e instalaciones con autorización para disponer de equipo de música sin pista de baile	65 db.	90 db (A)
4. taldeko lokalak Locales del grupo 4	Musika ekipoa eta dantzarako pista edo ikuskizunak antolatzeko baimena duten lokal eta instalazioetan / Locales e instalaciones con autorización para disponer de equipo de música con pista de baile o realizar espectáculos	75 db.	100 db (A)

b) Artikulu honetan eskatzen diren isolamendu balioak, hau da, aireko zarataren eta inpaktuen zarata-mailari dagozkionak, ezartzeko, etxebizitzak hartuko dira beti erreferentzia gisa.

Balore hauek autonomia erkidegoko, estatuko edo Europako araudietan gerta daitezkeen aldaketen menpe egongo dira.

3. artikulua. *Sonografoaren gutxieneko baldintzak eta hura jartzea.*

1. Sistemak, gutxienez, honako baldintza hauek izan beharko ditu:

a) Jardueraren zarata aldia jaso eta gorde egin beharko da. Era berean, hori zein egunetan gertatu den jaso beharko da, eta hasiera eta bukaera orduak ere bai. Minutu bateko gehienezko aldiari dagokion maila baliokidea jaso beharko da, baita hori zein ordutan gertatu den ere. Azkenik, saioaren batez besteko maila baliokideak ere jaso beharko dira.

b) Zarata-iturrien funtzionamendu-aldiak jaso eta gorde egin beharko dira. Horiek zein egunetan eta zein ordutan piztu eta itzali diren ere zehaztu beharko da. Horretaz gain, soinuak entzunarazten dituen sistemaren errendimendua zer nolakoa den adieraziko da, ondo dabilela jakin ahal izateko.

c) Aurreko ataletan adierazitako informazioa sei hilabete-tan eduki beharko da gordeta, gerora, ikuskapenak egin ahal izateko.

d) Ekipoa ezin izango da manipulatu. Horretarako, sentso-reak zaintzeko sistemaren bat izan beharko da. Sistema horrek sentso-reak manipulatu egin direla jakiteko gai izan beharko du.

e) Homologatutako sistema bat izan beharko du, Udalaren zerbitzu teknikoek, edo horiek eskuordetutako erakundeek datuak jaso ahal izan ditzaten. Datu horiek ikuskatze-zerbitzuen sistema informatikoetara bidaltzeko moduan jasoko dira. Horretaz gain, posible izan beharko da horiek inprimatzea. Datu bilketa hori ez da suntsitzailerik izango, eta gainera, horiek ez manipulatzeko modukoak izango dira.

f) Azkenik, Setuparen manipulaziorik ez gertatzeko beharrezko diren babes-elementuak izan beharko ditu sistemak. Manipulazioa giltza elektronikoa edo sarbide-gakoen bidez egingo da.

2. Sonografoa, behin jartzen denean, udal-zerbitzu teknikoek edo eskuordetutako erakundeek bakarrik manipulatu ahal izango dute.

3. Establezimenduaren titularrak bere kontura jarri beharko du soinuak grabatzen dituen frekuentzia-mugatzailea. Jarri aurretik, onartu egin beharko da tresna hori, eta udal-zerbitzu teknikoek edo eskuordetutako erakundearen aurrean instalatu beharko da. Beharrezkoa baldin bada, lokalaren barnean sortzen den zarataren isolamendua ere frogatu beharko da.

b) Los valores de aislamiento a ruido aéreo y de nivel de ruido de impactos exigidos en este artículo se refieren siempre con respecto a viviendas.

Estos valores están sujetos a variaciones por normativas de ámbito autonómico, estatal o europeo.

Artículo 3. *Condiciones mínimas del sonógrafo y su instalación.*

1. El sistema deberá reunir las condiciones mínimas siguientes:

a) Registrar y almacenar el período de funcionamiento ruidoso de la actividad, registrando fecha y hora de inicio y final, nivel equivalente a 1 minuto máximo de período y la hora a la que ésta se produce, y por último, los niveles equivalentes medios de la sesión.

b) Registrar y almacenar los períodos de funcionamiento de las fuentes sonoras, con indicación de la fecha y hora de encendido y apagado, así como el rendimiento energético del sistema de reproducción sonora, al objeto de poder comprobar su correcta actuación.

c) Conservar la información de los apartados anteriores durante un período de seis meses, a fin de permitir una inspección a posteriori.

d) Inviolabilidad del equipo, para lo cual deberá disponer de un sistema de vigilancia de los elementos sensores que sea capaz de determinar la manipulación de los mismos.

e) Disponer de un sistema homologado que permita a los servicios técnicos municipales, o entidad delegada, realizar la recogida de los datos de forma que puedan ser trasladados a los sistemas informáticos del servicio de inspección para su análisis y evaluación, permitiendo la impresión de los mismos. Esta captura de datos no ha de ser destructiva ni ha de permitir la manipulación de los mismos.

f) Por último, el sistema deberá disponer de los elementos de protección necesarios que eviten la manipulación del Setup, realizándose ésta mediante llaves electrónicas o claves de acceso.

2. El sonógrafo, una vez instalado, podrá ser manipulado única y exclusivamente por los servicios técnicos municipales o entidad delegada.

3. La instalación del limitador frecuencial con registro sonográfico será realizada por cuenta del titular del establecimiento previa aprobación del aparato y en presencia de los servicios técnicos municipales o entidad delegada, siendo a cuenta del titular o regente de la actividad los costes derivados por su instalación, incluidos si fuera necesario la comprobación del aislamiento a ruido aéreo del local.

4. Sistema elektronikoa eta musika ekipoaren babeserako mugatzailea instalatuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria izan beharko da. Hori unibertitate mailako titulazio teknikoaren duen langile batek egin beharko du. Langile horrek egiaztatu egin beharko du burutu dituela akustikari eta zaraten neurketari buruzko ikastaro teoriko-praktikoak. Horretaz gain, langile horrek Lanbide Heziketako titulazioa, eta zarata eta bibrazioaren arteko ebaluazioa egiteko lan-berezitasuna eduki ahal izango ditu.

4. artikulua. Ikuskatzea eta kontrolatzea.

1. Horretarako eskumena duen udal-zerbitzuaren edo, beharrezko espezializazio teknikoaren izanik, Udalak horretarako gaitu dituen erakunde laguntzaileen ardurapekoa izango da legeak zarata-transmisioaren esparruan jarrita dituen mugak betetzen direla bermatzeko, ikuskatze eta kontrol lanak egitea.

2. Jardueraren, lokalaren edo establezimenduaren titularrak edo arduradunek, edozein unetan, ezinbestean sartzen utzi beharko diete ikuskapen eta kontrol-lanak egiteko gaituta dauden pertsonaei. Aldi berean, ikuskatzea egiteko beharrezkoa den laguntza eman beharko diete.

3. Sortutako zarata ikuskatu eta kontrolatu ahal izateko, Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu ahal izango du ENACek egiaztatutako erakunderen batekin, edo EN 45.000 arau multzoa betetzen dutela ziurtatzen dutenekin. Horretaz gain, kalte-tutako aldeei horren partehartzea ezarri ahal izango die, Ordenantza honetan araututako edozein prozesutan.

4. Zarata dela-eta salaketaren bat egin delako, lokalaren barruan sortzen den zarataren isolamendua frogatu behar baldin bada, ondoren zehazten den kasuistikaren arabera ordainduko da:

a) 3.4 eta 4.4. artikuluetan zehaztutakoaren arabera, kualifikatutako langileak edo egiaztatutako erakundeak egindako neurketa errealarari buruzko daturik ez badago, jardueraren titularrak edo arduradunak ordainduko du.

b) Lokal barruko zarataren inguruan, jardueraren titularrak edo arduradunak adierazitako lokal barruko zarata konpartatu nahi baldin bada, Udalak ordaindu beharko du.

c) Erreklamazioa egiten duenak, Udalak adierazitako zarataren isolamendu maila izanda ere, konprobazio hori berriz ere egin nahi duela adieraziz gero, eta neurketaren emaitza 2. artikulua 1. atalean ezarritako mailekin bat baldin badator, erreklamazioak ordaindu beharko du. Maila apalagoa neuritzen baldin bada, jardueraren titularrak edo arduradunak ordainduko du dagokion kostua.

5. Udalaren lankide den erakundeak edo sonografoa instalatu duenak egiaztatu beharko ditu zaratak direla-eta aurkeztu diren salaketak.

5. artikulua. Lege-haustek.

1. Ordenantza honetako xedapenen aurka burutzen diren ekintzak edo ez-egiteak administrazioko arau-haustetat hartuko dira.

Lege-haustek arinak, larriak eta oso larriak izango dira, beti ere, ondorengo ataletan jasotako sailkapenaren arabera.

2. Arinak:

— Jarduerak musika aparatua piztuta edukitzeko jarrita duen ordutegitik kanpo erabili duelako, zaratagatik egindako arau-haustea edo salaketa.

— Musika aparatua itzalita eduki arren, zaratagatik arau-haustea edo salaketa, establezimenduari funtzionatzeko jarri zaion ordutik kanpo egiten bada.

4. Certificado de instalación de un sistema electrónico y limitador de protección del equipo musical elaborado por personal con titulación técnica universitaria y acreditación de cursos teórico prácticos de acústica y medición del ruido o con titulación de Formación Profesional y especialización profesional en la evaluación del ruido a la vibración.

Artículo 4. Inspección y control.

1. La función inspectora y de control tendente a garantizar el cumplimiento de los límites de transmisión de ruido legalmente fijado, se efectuará a través del servicio municipal competente, o por otras personas o entidades colaboradoras con la especialización técnica precisa, a las que el Ayuntamiento habilita para el ejercicio de este cometido.

2. Los titulares o responsables de la actividad, local o establecimiento están obligados a permitir el libre acceso de las personas acreditadas para la inspección y Control en cualquier momento, así como a prestar la colaboración necesaria en la inspección.

3. El Ayuntamiento podrá formalizar un convenio de colaboración con una entidad acreditada por ENAC o que justifiquen el cumplimiento de la serie de normas EN 45.000 para la inspección y control del ruido y que podrá imponer a las partes afectadas su intervención en cualquiera de los procesos regulados por la presente Ordenanza.

4. Si ante la formulación de una denuncia por ruidos se precisara realizar la comprobación del aislamiento a ruido aéreo del local, su financiación será sufragada conforme a las casuísticas que se relacionan a continuación:

a) Por el titular o regente de la actividad si no se dispone de dicho dato obtenido por una medición real efectuada por personal cualificado o entidad acreditada conforme descripción de los art. 3.4 y 4.4.

b) Por el Ayuntamiento si se desea contrastar el aislamiento a ruido aéreo que se aporte por el titular o regente de la actividad.

c) Por el reclamante, cuando disponiéndose del nivel de aislamiento a ruido aéreo del local reconocido como válido por el Ayuntamiento, reitera su deseo de efectuar dicha comprobación, y el resultado de las mediciones cumple con los niveles establecidos en el apartado 1 del art. 2. En caso de obtenerse un nivel inferior, el costo correspondiente, será abonado por el titular o regente de la actividad.

5. Las comprobaciones de las denuncias por ruidos serán preferentemente realizadas por la entidad colaboradora del Ayuntamiento o por la que hubiere intervenido en la instalación del sonógrafo.

Artículo 5. Infracciones.

1. Se considerarán infracciones administrativas las acciones u omisiones que contravengan las disposiciones de la presente Ordenanza.

Las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves de conformidad con la tipificación contenida en los siguientes puntos.

2. Leve:

— Si la infracción / denuncia por ruido coincide con la utilización del aparato musical fuera del horario de funcionamiento permitido a la actividad.

— Si la infracción / denuncia por ruido coincide fuera del horario de funcionamiento permitido a la actividad, aunque no se utilice el aparato musical.

— 2.1 artikuluan aipatutako ainguraketentzat ezarritako zarata maila 3 dezibeliotan gainditzea.

— Lokalaren isolamendu baldintzei kalteak eragiten dizkieten gainontzeko irregulartasunak.

— Irekiera eta jarduera baimenetan jasotako baldintzak ez betetzea.

— Atondoko atea itxita edukitzeko betebeharrak ez betetzea.

— Behar bezalako arrazoirik gabe, instalazioak eta jarduerak ikuskatzeko zitazioetara ez aurkeztea.

— Udalaren ikuskapen lana eragozteak.

— Matxuren, ustekabeen, eta ezinbestean gertatzen diren gainontzeko arrazoien ondorioz, musika aparatua edo soinuak grabatzen dituen frekuentzia-mugatzailea gelditzen bada, Udalari horren berri ez ematea.

3. Larriak:

— Aurreko artikuluko ataletan aipatzen direnak, baina sortutako asaldura oso larritzat hartzeko moduko baldintzak gertatzen ez baldin badira.

— 2.1 artikuluan aipatutako ainguraketentzat ezarritako zarata maila 3 (A)- 5 (A) dezibeliotan gainditzea.

— Urtebetean bi arau-hauste jarraian egitea, edo bi urtetan, jarraian hiru arau-hauste egitea.

— Udalaren ikuskapen lanari oztopo aktiboak zein pasiboak jartzea.

— Atzemandako hutsegiteak zuzentzeko, Udalaren errekerimenduak eta horrek jarritako epeak ez betetzea.

— Soinuak grabatzen dituen frekuentzia-mugatzailea manipulatzeko.

4. Oso larriak:

— Jarduera eteteko, ixteko eta gelditzeko emandako aginduak eta ezarritako neurri zuzentzaileak ez betetzea.

— Udalak ezarritako kautelazko neurriak ez betetzea.

— 2.1 artikuluan aipatutako ainguraketentzat ezarritako zarata maila 5 (A) db baino gehiagotan gainditzea.

— Urtebetean, bi arau-hauste larri egitea.

— Bi urtetan jarraian, bi arau-hauste larri egitea.

— Bost urtetan, hiru arau-hauste larri egitea.

6. artikulua. Zehapenak.

1. Ordenantza honetan jasotako aginduen aurkako hauspenak honela zehatuko dira:

a) Arau-hauste arinak: Ohartarazpena egin eta 750 euro arteko isuna jarriko da.

b) Arau-hauste larriak: 751 eurotik 1500 euro bitarteko isuna jarriko da. Horretaz gain, baimena, behin-behingo, sei hilabetetarako etengo da. Hori dela-eta, zehapenak irauten duen bitartean, jarduera osoki edo partzialki itxi edo gelditu egingo da.

c) Arau-hauste oso larriak: 1501 eurotik 3000 euro bitarteko isuna jarriko da, eta jarduera itxi egingo da, sei hilabetetik bi urtera bitartean. Era berean, zehapena indarrean dagoen bitartean, jarduera itxi edo eten egingo da.

2. Behin-behingo ixteko zehapena, gehienez ere, bi hilabetetarako jarri ahal izango da.

— Superar los límites de ruido permitidos en los anclajes establecidos en el art. 2.1. hasta 3 db.

— Cualquier otra irregularidad que menoscabe las condiciones de aislamiento del local.

— El incumplimiento de las condiciones de las licencias de apertura y actividad.

— El incumplimiento de la obligación de mantener cerradas las puertas del vestíbulo.

— No presentarse, sin causa justificada, a las citaciones para inspección de instalaciones y actividades.

— La obstrucción a la labor inspectora municipal.

— No notificar al Ayuntamiento de la paralización del aparato musical o del limitador frecuencial con registro sonográfico, por averías, causas fortuitas, etc.

3. Grave:

— Las señaladas en los apartados del artículo precedente cuando la perturbación generada no reúna las condiciones para su consideración como muy grave.

— Superar los límites de ruido permitidos en los anclajes establecidos en el art. 2.1., de 3 dB(A) y hasta 5 dB(A).

— La comisión de dos infracciones leves en un año, o tres en dos años consecutivos.

— La obstrucción, activa o pasiva a la labor inspectora municipal.

— El incumplimiento de los requerimientos y plazos municipales para la corrección de las deficiencias observadas.

— La manipulación del limitador frecuencial con registro sonográfico.

4. Muy grave:

— El incumplimiento de las órdenes de suspensión, clausura y cese de las actividades así como el incumplimiento de las medidas correctoras impuestas.

— El incumplimiento de las medidas cautelares impuestas por el Ayuntamiento.

— Superar los límites de ruido permitidos en los anclajes establecidos en el art. 2.1 en más de 5 dB(A).

— La Comisión de dos infracciones graves en un año.

— La Comisión de dos infracciones graves en dos años consecutivos.

— La Comisión de tres infracciones graves en cinco años.

Artículo 6. Sanciones.

1. Las infracciones a los preceptos de la presente Ordenanza se sancionarán de la forma siguiente:

a) Infracciones leves, con apercibimiento y multa de hasta 750 euros.

b) Infracciones graves, con multa de 751 a 1500 euros, y suspensión temporal de licencia por plazo de hasta seis meses, con la consiguiente clausura o cese de la actividad, total o parcial, mientras subsista la sanción.

c) Infracciones muy graves, con multa de 1501 euros a 3000 euros, y clausura por periodos desde seis meses hasta dos años, con la consiguiente clausura o cese de la actividad mientras subsista la sanción.

2. La sanción de clausura temporal podrá imponerse por un periodo máximo de 2 meses.

7. artikulua. Zehapenak graduatzea.

Dagokion zehapenaren zenbatekoa graduatu ahal izateko, honako inguruabar hauek, denak batera, hartuko dira kontuan:

- Egindako arau-haustea nolakoa den.
- Sortutako kaltearen eta sor daitekeenaren larritasuna. Norbanakoei sortutako kalteak eta arau-haustek gizaratean duen eragina.
- Arau-hauslearen erruzko edo doluzko jarrera.
- Arau-haustek behin eta berriro egitea.

8. Artikulua. Zehapen-prozedura.

Zehapen-prozedurak araudi orokorrean ezarritako zehapen-prozeduraren arabera tramitatuko dira. Espedientearen edozein unetan, egokituz jotako kautelazko neurriak ezarri ahal izango dira, asaldatutako lasaitasuna berriro ere lortze aldera.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2. artikulua 3 eta 4 taldeetan zehaztutako establezimenduek instalazio edo irekiera baimena Ordenantza hau indarrean jarri aurretik lortu badute, gehienez ere, hamabi hilabeteko epea izango dute, soinuak grabatzen dituen sistema instalatzeko.

AZKEN XEDAPENAK

1. Ordenantza hau, testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hogeit lau laneguneko epean, sartuko da indarrean.

2. Udal agintariak, espresuki, baimenak emateko eta Ordenantza honetan adierazitakoa interpretatzeko, argitzeko eta garatzeko eskumena izango dute; beti ere, prozedura erkideari buruzko legedian jasotako printzipioen arabera.

Iragarkia

Bide Publikoan, Establezimenduen kanpoaldean, Terrazak eta mahai-tokiak jartzeko baldintzak arautzen dituen Ordenantzaren hasiera bateko onarpena argitaratu ondoren, eta 7/1985 Legearen 49.c artikuluan zehazten den legezko epean jendaurrean egon eta inolako erreklamaziorik egon ez denez, behin betiko onartuzat jotzen da.

Ondorioz, eta Toki Jaurpidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan jasotakoari jarraiki, aipaturiko Ordenantza osorik argitaratuko da.

Elgoibar, 2005eko maiatzaren 13a.—M.^a Victoria Aguirregomezcora Urain, Alkatea.

(1961)

(4936)

Bide Publikoan, Establezimenduen kanpoaldean, Terrazak eta mahai tokiak jartzeko baldintzak arautzen dituen Udal Ordenantza.

I. KAPITULUA

1. artikulua. Ezar daitekeen araudia.

Honako artikulua hauek emandako eskumenei jarraiki ezartzen da ordenantza hau: Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 1985eko Legearen 25. artikulua, Toki Korporazioen Ondasunei buruzko 1986ko Araudiaren 77. artikulua, eta Toki Korporazioetako Zerbitzuen 1955eko Araudiaren 1-17 artikulua.

Artículo 7. Graduación de la sanción.

Para graduar la cuantía de las respectivas sanciones se valorarán conjuntamente las siguientes circunstancias:

- La naturaleza de la infracción.
- La gravedad del daño producido y potencial. Perjuicios causados a particulares y repercusión social de la infracción.
- La conducta dolosa o culposa del infractor.
- La reincidencia o reiteración en la comisión de infracciones.

Artículo 8. Procedimiento sancionador.

Los procedimientos sancionadores se tramitarán con arreglo al procedimiento sancionador establecido en la normativa general. En cualquier momento del expediente se podrán imponer las medidas cautelares adecuadas, con el fin de conseguir la restauración de la tranquilidad alterada.

DISPOSICION TRANSITORIA

Los establecimientos con licencia de instalación o apertura otorgada con anterioridad a la entrada en vigor de la Ordenanza, comprendido en los grupos 3 y 4 del artículo 2, dispondrán de un plazo máximo de doce meses para instalar el sistema de registro sonográfico.

DISPOSICIONES FINALES

1. La presente Ordenanza surtirá efectos una vez transcurridos veinte días hábiles desde la publicación del texto íntegro de la misma en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

2. Se autoriza expresamente a la autoridad municipal para el otorgamiento de licencias, a interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza, conforme a los principios recogidos en la legislación sobre procedimiento administrativo común.

Anuncio

Habiendo sido publicada la aprobación inicial de la Ordenanza Reguladora de la instalación de Terrazas y Veladores en la Vía Pública, y no habiéndose producido reclamación alguna en el plazo legal de exposición pública, de conformidad con lo estipulado con el artículo 49.c de la Ley 7/1985, se entiende definitivamente aprobado.

En consecuencia, se procede a la publicación íntegra de la citada Ordenanza, conforme a lo previsto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Elgoibar, a 13 de mayo de 2005.—La Alcalde, M.^a Victoria Aguirregomezcora Urain.

(1961)

(4936)

Ordenanza Municipal Reguladora de la instalación de Terrazas y Veladores en la Vía Pública.

CAPITULO I

Artículo 1. Normativa de aplicación.

La presente Ordenanza se dicta en virtud de las facultades otorgadas por el artículo 25 de la Ley de Bases del Régimen Local de 1985, artículo 77 del Reglamento de Bienes de las Corporaciones Locales de 1986, artículos 1 a 17 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales de 1955.